

DIRU-ITURRIAK

Bi motatako diru-sarrerak izango ditugu; ordainketa bakarrekoak eta ordainketa errepikariak. Ordainketa bakarrekoak izango dira, bezeroak makina bakunak nahi dituztenean, hau da, makinak beraien etxe propiorako edo beste norbaitentzako nahi dituzten bezeroak. Ordainketa errepikariak izango dira berriz, bezeroek makina ugari nahi dituztenean, esate baterako, gimnasio baten edo gimnasio enpresa kate baten jabeak. Bigarrenago hau horrelako ordainketak izango dira, diru kantitate handiagoak izango direlako, eta ordainketa bakar batean egitea zailagoa litzatekeelako.

Diru-sarrerak sortzeko modua aktiboen salmenta izango da nagusiki, produktu jakin baten, kasu honetan, gimnasia makinan, jabetza saldu egingo diegulako bezeroei, makina erosten duen bezeroak askatasun osoz erabili ahal izateko.

Makinen prezioak finkoak izango dira, hau da, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta egongo dira. Aldi berean, ezaugarrien araberako prezioak ezarriko ditugu, hau da, makina ezberdinak egingo ditugunez, bakoitzaren prezioak ere ezberdinak izango dira, hori bai, makinak poltsiko guztietarako modukoak izango dira, hau da, edonorentzat eskuragarriak. Ordainketa eskuz edo txartelez egiteko aukera izango dute, makinak erosleari entregatzen dioten unean bertan.

